

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Kultura Departamentuak 1956 eta 1976 artean Iruñerrian beste langile klase bat sortu izanari buruzko azterlan bat argitaratu du

Nerea Pérez Ibarrolaren Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956-1976 liburuak klase hartako kideek sortu zituzten eremuak eta harremanak berreraikitzen ditu, eta izan zituzten esperientziak, ideiak eta balioak erakutsi, baita izan zituzten gatazkak eta borrokak ezagutarazi ere

Osteguna, 2017.eko azaroak 9

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak *Langileria Berri Baten Eraketa. Iruñerria 1956-1976* liburua argitaratu du. Nerea Pérez Ibarrolak idatzi du, euskaraz, 2016an Nafarroako Unibertsitate Publikoan defendatu zuen doktorego-tesian oinarrituta.

Egileak dioten bezala, lana ez da langile-mugimenduen historia, baizik eta mugimendua osatu zuten langileen historia; frankismoaren garaian eratu zen Iruñeko langile haien inguruko azterketa. Lana egiteko, Pérez Ibarrolak askotariko iturri bibliografikoak, dokumentalak, hemerografikoak eta ahozkoak kontsultatu eta alderatu ditu.

Langileek diktadura-garaiari amaiera emateko izan duten eginkizuna azaltzeko beharretik abiatuta, eginkizun hori betetzera nola iritsi ziren aztertzen du lanak, zergatik hartu zuten parte langile-mugimenduetan eta mugimendu sindikal eta politikoetan, eta zergatik esku hartu zuten urte haietako gatazka eta grebetan.

Lan horretan, langileek nortasun komuna nola osatu zuten ere azaltzen da. Nortasun horrek taldean aritzera eraman zituen langileak, batetik, bizimodua eta lana hobetzeko, eta, bestetik, diktadura-garaiari amaiera emateko, erregimena desagerraraziz gero bizimodu hobea izango zutelako.



Liburuko lehen orrialdearen irudia.

Kontuan hartuta zer testuingurutan sortu zen langile klase hori, frankismoaren garaian langileak zein egoeratan geratu ziren, eta zer esperientzia bizi izan zituzten XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera izandako aldaketa sozial bizkor eta handien ondorioz, liburuak prozesu horren garapena deskribatzen du, eta klase hartako kideek sortu zituzten eremuak eta harremanak berreraikitzen ditu, eta izan zituzten esperientziak, ideiak eta balioak erakutsi, baita izan zituzten gatazkak eta borrokak ezagutarazi ere.

Hainbat agertoki aztertzen dira: fabrikak eta langile-auzoak; elkarte apostolikoak eta langile-mugimendua; eta alderdi politikoak eta 60ko hamarkadaren amaierako eta 70eko hamarkadaren hasierako grebak; horrela, testuinguru oso bat sortzen da, liburuko protagonisten bizitzako ibilbidea eta ibilbide militantea uztartuz.

Lan honek trantsizioaren eta diktadura-garaia amaieraren subjektu historiko gisa jartzen du langile klasea; haren istorioetan jartzen du arreta, eta langileek bilakaera bat dutela erakusten du, langile-nortasuna izatetik frankismoaren aurkako borrokan duten eginkizunaz ohartzen diren langile izatera.

Azterlanari hasiera emanez, aldaketa sozioekonomiko handien garaia agertzen da, baita Iruñerriko langile berrien sorrera ere. Ondoren, langileek bizi izan zuten garapenez eta esplotazio-esperientziez hitz egiten da; eta langileek auzoetan, aisialdian, Elizarekin eta mugimendu sekular apostolikoan zer bizi duten ere aztertzen da. Gero, beste langile-kultura bat sortzeko eremuak eta antolaketa moduak aurkezten dira: fabrikak, langileak, militanteak eta batzordeak.

Azkenik, Iruñerriko langile horien kultura politikoak, Iruñeko langile-borroka eta -mugimenduen gatazka eta dinamika eta borroka haren ondorioak deskribatzen dira.

Egilea

Nerea Pérez Ibarrola historialaria da, Euskal Herriko Unibertsitatean lizentziatu zen, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoan (UPNA) doktoratu, frankismoaren garaiko historia sozialari, mugimenduei eta gizarte-gatazkei buruzko tesi batekin.

Gerónimo de Uztariz Historia Ekonomiko eta Sozialeko Institutuko idazkaria izan da, eta, gaur egun, bertako zuzendaritza-batzordeko kidea da. Horretaz gain, UPNAren Nafarroako Memoria Historikoaren Dokumentu Funtseko «Recuperando Memoria Berreskuratzen» ikerketa-taldeko kidea ere bada.